



GB

GRAND BOT – PROTECT OUR FUTURE

8- JARDUERAK

Gure enpresak nola eta noiz jardungo duen jakitea oso garrantzitsua izango da, bai bezeroarentzako eta bai guretzako ere gure planteamendua argia izateko eta lana efektiboagoa ere. Beraz, 3 esparru nagusitan banatuko da (garrantzizko ordenean): ekoizpena, arazoen konponketa eta sareko jarduerak.

Hasteko, gure enpresaren eta honen merkatuarekiko ekoizpena dira guretzat garrantzia gehien daukaten atalak. Hortaz, hau ere azaldu beharra dago. Egia da ez garela manufaktura edota horrelako enpresa bat eta beraz ematen duela ez dela guretzat dagoen jarduera nagusia, baina gure ustez gure sistemaren ekoizpenean hasten da dena, hor planifikatuko dugulako gure bezeroarekiko plan pertsonalizatua (gure proiektuaren ardatz handienetarikoa).

Bestalde, arazoen konponketa ere bada guretzat ezinbestekoa. Azken finean, enpresa baten balia eta maila honek daukan arazoekiko erantzunean ikusiko da, hau da, arazoa konpontzen iraungo duen denbora, erabiliko duen dirua eta emango duen tratua ere. Hauek kontrolpean izanez gero, gure bezeroekiko harreman eta erlazioa sendotuko dugu, hauen fideltasuna ere handituz.





GB

Azkenik, baina hala era bere garrantziarekin ere, sareko jarduerak ditugu. Nahiz eta azkena izan, guk ere garrantzia handia emango diegu sareei, hauek etorkizuneko merkatuan izango dugun indarra finkatuko dutelako. Gainera, honetan espezializatutako plan eta lantalde batzuk sortu ditugu, premiazko gaia baita. Baina, nahiz eta egunen batean garrantzitsuena bihurtuko den, gaur egun esan beharra dago gure bezeroen adina dela eta ez direla gure markaren difusioaren eragilerik handiena izango.